2024ZAUN0112

BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETA ETA GAUEKO HARRERA ZERBITZUAK ETA HEZKUNTZA LANA EGITEKO OHIKOA EZ DEN ORDU POLTSA BAT KUDEAKETAREN KONTRATAZIOA.

CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN DE LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN DIURNA Y DE ACOGIDA NOCTURNA PARA PERSONAS EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN Y DE UNA BOLSA DE HORAS DE TRABAJO EDUCATIVO DE CARÁCTER NO HABITUAL.

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	GIZARTE ONGIZATE ETA BERDINTASUN ARLOA / AREA DE BIENESTAR SOCIAL E IGUALDAD
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2024ZAUN0112

-KLAUSULAK-	**-CLÁUSULAS-**
I. XEDEA.	**I. OBJETO.**
Kontratuaren xede zehatza da bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arretako eta gaueko harrerako zerbitzuak kudeatzea, bai eta ohikoa ez den hezkuntza-lanorduen poltsa bat kudeatzea ere.	El objeto concreto del contrato es la gestión de los Servicios de atención diurna y de acogida nocturna para personas en situación de exclusión, así como de una Bolsa de horas de trabajo educativo de carácter no habitual.
II. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA	**II. DESCRIPCIÓN DE LOS SERVICIOS.**
II.1. GIZARTE BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEZ ARRETA ESKAINTZEKO UDAL ZERBITZUA.	**II.1. SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA PARA PERSONAS EN SITUACION DE EXCLUSIÓN.**
Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren parte dela Eguneko Laguntza Zerbitzua, eta, gainera, zehazten du oinarrizko arreta zerbitzua dela (22.1.7 artikulua), eta zerbitzu horren hornidura eta prestazioa Udaleko Gizarte Zerbitzuek bermatu behar dutela.	La ley 12/2008, de Servicios Sociales establece el Servicio de Atención Diurna como parte del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, determinando, además, que se trata de un servicio de atención primaria (Art.22.1.7), cuya provisión y prestación se debe garantizar desde los Servicios Sociales Municipales.
Era berean, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, xedatzen du, egunean zehar pertsonen eskura bitarteko bat jartzen duen zerbitzua dela eguneko arreta zerbitzua (1.7). Zerbitzu horretan	Asimismo, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, establece que el Servicio de atención diurna (1.7), es un servicio que pone a disposición de las personas un dispositivo al que acudir durante el día, en el

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 2LY4-MH86-BJ0U-ZSHD
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Miren Itziar Elizondo Goienetxea (08/01/2026 13:41 CET)

intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie, oinarrizko elikadura eta higiene premiak asetzeko.	que se les ofrece un apoyo de baja intensidad, ligado a cubrir sus necesidades básicas de alimentación e higiene.
Eskakizun txikiko eta aldi baterako zerbitzua da, eta honako funtzio hauek betetzen ditu: • Oinarrizko beharrak estaltzea, erabiltzaileei leku bat eskainiz nork bere burua babesteko, garbitzeko eta egunez jateko. • Erabiltzaileei informazioa ematea dituzten eskubideei eta eskura ditzaketen gizarte baliabideei buruz, eta beren egoera normalizatzeko bidean kudeaketak egiteko orientabideak ematea.	Se trata de un servicio de baja exigencia y uso temporal que desarrolla las siguientes funciones: • Cubrir necesidades básicas ofreciendo a las personas usuarias un dispositivo en el que resguardarse, asearse y comer durante el día. • Informar a las personas usuarias sobre los derechos que les asisten y los recursos sociales a los que pueden acceder, así como orientarles en la realización de gestiones tendentes a normalizar su situación.
Bazterkeria egoeran dauden 18 urteko edo gehiagoko pertsonak dira baliabidearen hartzaileak.	Las personas de 18 años o más y que están en situación de exclusión, constituyen la población destinataria del recurso.
Honako prestazio hauek izango ditu zerbitzuak: 1.- Gizarte Zerbitzuen prestazioak*: 1.1- Informazioa 1.2- Bitartekaritza-bitartekotza 1.3- Esku hartze hezitzailea eta psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea). 2.- Prestazio osagarriak: 2.1- Mantenua (hamaiketakoa eta askaria); eta Udalak baimena emanez gero, bazkaria. 2.2- Norbere higienea 2.3- Arropa garbiketa 2.4- Kontsigna 2.5- Laguntzarako gunea (irakurketa, ordenagailuak, mahai jokoak, atseden hartzeko lekua, tailerrak...) 2.6- Korrespondentzia jasotzea eta bertaratze kontrola udalerrian izaera sozialeko errolda duten pertsonentzat.	El servicio contará con las siguientes prestaciones: 1.- Prestaciones de Servicios Sociales: 1.1- Información 1.2- Mediación-intermediación 1.3- Intervención educativa y psicosocial (escucha activa y contención emocional) 2.- Prestaciones complementarias: 2.1- Manutención (almuerzo y merienda); y en caso de autorización por parte del Ayuntamiento, comida. 2.2- Higiene personal 2.3- Lavandería 2.4- Consigna 2.5- Espacio de acompañamiento (lectura, juegos de mesa, espacio de descanso, talleres…) 2.6- Recepción de correspondencia y control de asistencia para personas con empadronamiento de carácter social en el municipio.
Bazterturik dauden pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua Zubia zentroan dago gaur egun (Mirarietako Ama Birjina kalea, z/g, Irun), etorkizunean beste leku batzuetan kokatzeko aukerari kalterik egin gabe.	El Servicio de atención diurna para personas en situación de exclusión se ubica actualmente en el Centro Zubia (C/ Virgen Milagrosa, s/n de Irun), sin perjuicio de futuras ubicaciones.
Zerbitzua urteko egun guztietan irekiko da. Zerbitzuaren nahitaezko ordutegia 09:00etatik 21:00etara izango da, astelehenetik igandera.	El servicio abrirá todos los días del año. El horario de funcionamiento obligatorio del servicio será de 09.00 a 21:00 h, de lunes a domingo.
Udalak ordutegi horiek noiznahi aldatzeko aukera izango du, egoki irizten badio, lan egin beharreko eguneko orduen guztizko kopurua aldatu gabe.	El Ayuntamiento se reserva la posibilidad de modificar estos horarios en cualquier momento si lo estima oportuno, sin modificar el número total de horas diarias a trabajar.

Zerbitzuaren funtzionamendua Gizarte Jantokiaren eta Elkargunearen Erregelamenduan ezarritako arauek arautuko dute (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2014ko abuztuaren 21a), edo, hala badagokio, haren ordezko arauek, Gizarte Ongizate Arloak ezartzen dituen jarraibideek, Barne Araudi batean jaso daitezkeenak, eta kontratazio hau arautzen duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Agirian ezarritako baldintzek. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudiari egokituko zaio funtzionamendua. • Zerbitzuan eskaintzen diren gizarte zerbitzuen prestazio teknikoen definizioak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren III. eranskinean jasotakoak dira.	El funcionamiento del servicio se regirá por las normas establecidas en el Reglamento del Comedor y Punto de Encuentro Social (Boletín Oficial de Gipuzkoa, 21 de agosto de 2014), o aquél que le sustituya en su caso, por las directrices que se marquen desde el Área de Bienestar Social y que puedan ser recogidas en una Normativa Interna y por las condiciones establecidas en los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativos y Técnicos reguladores de esta contratación. En cualquier caso, el funcionamiento se adaptará a la normativa vigente en cada momento. • Las definiciones de las prestaciones técnicas de Servicios Sociales que se ofrecen en el servicio son las que constan en el anexo III al Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
Hona hemen azken 5 urteetako jarduera datuak:	Los datos de actividad de los últimos 5 años son los siguientes:

	2022	**2023**	**2024**	**2025**
Erabiltzaile kop. / Nº personas usuarias	1.371	1.284	1.217	1.689
Otordu kop. / Nº de comidas	8.846	11.701	16.553	10.748
Higiene zerbutzuen kop. / Nº de servicios de higiene	3.539	5.645	5.623	5.855
Garbitzeko zerbbitzuen kop / Nº de servicios de lavandería	516	454	900	865

II.2. SERVICIO DE ACOGIDA NOCTURNA.	**II.2. SERVICIO DE ACOGIDA NOCTURNA.**
Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren parte dela Eguneko Laguntza Zerbitzua, eta, gainera, zehazten du oinarrizko arreta zerbitzua dela (22.1.8 artikulua), eta zerbitzu horren hornidura eta prestazioa Udaleko Gizarte Zerbitzuek bermatu behar dutela.	La Ley 12/2008, de Servicios Sociales establece el Servicio de acogida nocturna como parte del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, determinando, además, que se trata de un servicio de atención primaria (Art.22.1.8), cuya provisión y prestación se debe garantizar desde los Servicios Sociales Municipales
Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenez, laguntza intentsitate txikiko tresna da gaueko harrera zerbitzua, eta haren bidez gaua pasatzeko baliabide bat eskaintzen zaie bazterkeria egoeran dauden pertsonei, batez ere iragaitzazkoei eta etxerik gabeko pertsonei, eta horrekin batean gaua emateko oinarrizko prestazioak, mantenua eta higiene pertsonala ere.	Asimismo, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, establece que el Servicio de acogida nocturna, es un dispositivo, de baja intensidad de apoyo, que ofrece a personas en situación de exclusión, en particular a personas transeúntes y a personas sin hogar, un recurso en el que pasar la noche y, con carácter inmediato, prestaciones básicas de pernocta, manutención, e higiene personal.
Gaueko harrera zerbitzua Zubia Inklusio Zentroaren instalazioetan dago (Irungo Ama Birjina Mirarietakoa kalea, z/g), etorkizunean beste leku batean kokatzeko	El Servicio de acogida nocturna se ubica en instalaciones del denominado Centro de Inclusión Zubia, en la C/ Virgen Milagrosa, s/n de Irun), sin perjuicio de futuras

aukerari kalterik egin gabe, **eta gehienez 29 plaza ditu**. Bada plaza aurreikuspen bat, kopurua bereizi gabe, egonaldi laburretarako eta egonaldi berezietarako Bidasoa eskualdean errotze soziala duten eta/edo erroldatuta dauden pertsonentzat, bai eta tenperatura hotzetarako egonaldiak ere Eba- etxea Dispositiboa aktibatzen den aldietarako.	ubicaciones, y **cuenta con un máximo de 29 plazas**, en estas plazas se incluyen, plazas para cortas estancias y plazas para estancias excepcionales para personas con arraigo social y/o empadronamiento en la comarca del Bidasoa, así como estancias por bajas temperaturas, en el periodo que se active el Eba-etxea.
Modu iraunkorrean funtzionatzen du urteko gau guztietan, 21:00etatik 09:00etara. Udalak ordutegi horiek noiznahi aldatzeko aukera izango du, egoki irizten badio, lan egin beharreko eguneko orduen guztizko kopurua aldatu gabe.	Funciona con carácter permanente, todas las noches del año, en horario de 21:00 a 09:00 h, reservándose el Ayuntamiento la posibilidad de modificar estos horarios en cualquier momento si lo estima oportuno, sin modificar el número total de horas diarias a trabajar.
Zerbitzua indartu egin ahal izango da urteko aldi jakin batzuetan, premia handiagoei eta/edo aparteko inguruabarrei erantzuteko.	El Servicio podrá reforzarse en determinados periodos del año para responder a un aumento de necesidades y/o por circunstancias extraordinarias.
Zerbitzuaren funtzionamendua Gizarte Jantokiaren eta Elkargunearen Erregelamenduan ezarritako arauek arautuko dute, Gizarte Ongizate Arloak ezartzen dituen jarraibideek, Barne Araudi batean jaso daitezkeenak, eta kontratazio hau arautzen duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Agirian ezarritako baldintzek. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudiari egokituko zaio funtzionamendua.	El funcionamiento del servicio se regirá por el Reglamento Municipal Regulador del Servicio de Acogida Nocturna, por las directrices que se marquen desde el Área de Bienestar Social, que están en la Normativa Interna y por las condiciones establecidas en los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativos y Técnicos reguladores de esta contratación. En cualquier caso, el funcionamiento se adaptará a la normativa vigente en cada momento.
Honako prestazio hauek izango ditu zerbitzuak: 1.- Gizarte Zerbitzuen prestazioak*: 1.1.- Informazioa 1.2.- Beharren hasierako balorazioa, hala badagokio, eta jarraipenaren balorazioa. 1.3.- Esku hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala: esku hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea). 2.- Prestazio osagarriak: 2.1.- Gaua igarotzea 2.2.- Mantenua (afaria eta gosaria) 2.3.- Norbere higienea 2.4.- Arropa garbiketa 2.5- Kontsigna 2.6.- Larrialdiko oinarrizko arropa.	El servicio contará con las siguientes prestaciones: 1.- Prestaciones de Servicios Sociales: 1.1.- Información 1.2.- Valoración inicial de necesidades, en su caso, y valoración de seguimiento. 1.3.- Intervención socioeducativa y psicosocial: intervención psicosocial (escucha activa y contención emocional) 2.- Prestaciones complementarias: 2.1.- Pernocta 2.2.- Manutención (Cena y desayuno) 2.3.- Higiene personal 2.4.- Lavandería 2.5- Consigna 2.6.- Ropa básica de urgencia.
Hona hemen azken 3 urteetako jarduera datuak:	Los datos de actividad de los 3 últimos años son los siguientes

	2022	**2023**	**2024**	**2025**
Erabiltzaileak / Personas usuarias	1255	706	959	1665
Emandako gau kopurua / Número de pernoctas	9263	10.309	9842	9.530

II. 3. HEZKUNTZA LANA EGITEKO OHIKOA EZ DEN ORDU POLTSA				**II.3. BOLSA DE HORAS DE TRABAJO EDUCATIVO NO HABITUAL.**
Urtean gehienez 100 orduko poltsa ezarri da gizarte hezitzailearentzat eta/edo gizarte integratzailearentzat, honako testuinguru hauetan gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzeak egiteko: - Etxerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketa. - Komunitatea sentsibilizatzea eta inplikatzea bizitegi bazterketako egoerak prebenitzeko eta haiei aurre egiteko.				Se establece una bolsa de 100 horas anuales máximas de educador/a y/o integrador/a social, para la realización de intervenciones socioeducativas en los siguientes contextos: - Recuento nocturno de personas sin hogar. - Sensibilización e implicación de la comunidad en la prevención y abordaje de las situaciones de exclusión residencial
Poltsa hori profesional bati edo batzuei egokitu ahal izango zaie, modu sekuentzialean edo aldi berean.				Esta bolsa podrá corresponder a uno o varios profesionales, de forma secuencial o simultánea.
Lan ordu horiek Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloarekin koordinatuta aktibatuko dira. * Zerbitzuan eskaintzen diren gizarte zerbitzuen prestazio teknikoen definizioak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren III. eranskinean jasotakoak dira.				Estas horas de trabajo se activarán en coordinación con el Área de Bienestar Social e Igualdad. *Las definiciones de las prestaciones técnicas de Servicios Sociales que se ofrecen en el servicio son las que constan en el anexo III al Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
III. ALDEEN BETEBEHARRAK				**III. OBLIGACIONES DE LAS PARTES**
III. 1. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.				**III. 1. OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA.**
Baldintza Administratiboen Agirian xedatutakoa deusetan galarazi gabe, enpresa esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu: 1.1.- Zerbitzuak kudeatzeko proiektua aurkeztea. 1.2.- Zerbitzuen hartzaileei zuzeneko arreta ematea. 1.3.- Zerbitzuen kudeaketa eta koordinazioa. 1.4.- Hornidurak jartzea. 1.5.- Instalazioak eta altzariak egokitzea eta mantentzea. 1.6.- Dokumentuen kudeaketa. 1.7.- Instalazioak irekitzea eta ixtea eta sarrerak kontrolatzea.				Sin perjuicio de lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Administrativas, la empresa que resulte adjudicataria estará sujeta a las siguientes obligaciones: 1.1.-Presentar el Proyecto de gestión de los servicios 1.2.- Atención directa a personas destinatarias de los servicios. 1.3.- Gestión y coordinación de los servicios 1.4.- Provisión de suministros 1.5.- Acondicionamiento y mantenimiento de instalaciones y mobiliario. 1.6.- Gestión documental 1.7.- Apertura y cierre de las instalaciones y control de accesos.
III.1.1. ZERBITZUAK KUDEATZEKO PROPOSAMENA				**III.1.1. PROPUESTA DE GESTIÓN DE LOS SERVICIOS**
Erakunde esleipendunak proposamen teknikoa aurkeztu beharko du zerbitzuen kudeaketaren hasieran, Baldintza Teknikoen Agiri honetan ezarritakoaren arabera.				La entidad adjudicataria deberá presentar una Propuesta Técnica al inicio de la gestión de los servicios conforme a lo establecido en este Pliego de Condiciones Técnicas

Proposamen horretan honako alderdi hauek jasoko dira: 1. Zerbitzuen antolaketa eta kudeaketa. 2. Erabiltzaileen egoera normalizatzea helburu duten esku hartzeak garatzeko aukera ematen duten esku hartze eta tresnen metodologia. 3. Ekintzak aztertzeko eta ebaluatzeko sistema. 4. Profesionalen taldeari laguntza teknikoa ematea.	donde se recojan los siguientes aspectos: 5. Organización y gestión de los servicios. 6. Metodología de las intervenciones y herramientas que posibiliten el desarrollo de las intervenciones que tengan como objetivo normalizar la situación de las personas usuarias. 7. Sistema de análisis y evaluación de las acciones. 8. Apoyo técnico al equipo de profesionales.
Proposamen teknikoak Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloaren onespena beharko du.	La propuesta técnica deberá contar con la aprobación del área de Bienestar Social e Igualdad.
Dokumentu hori urtero eguneratuko da, eta zerbitzuen prestazioa hobetzeko metodologia eta antolamendu mailetan komeni diren berrikuntzak txertatuko dira.	Este documento se actualizará anualmente incorporando las posibles novedades a nivel metodológico u organizativo que sean convenientes para la mejora en la prestación de los servicios.
III.1.2. ZERBITZUEN ERABILTZAILEEI ZUZENEKO ARRETA EMATEA	**III. 1.2. ATENCIÓN DIRECTA A PERSONAS USUARIAS DE LOS SERVICIOS**
Erabiltzaileei emango zaien arreta ereduak pertsona eta laguntza harremanak izango ditu ardatz, eta laguntza instrumentala, emozionala, hezkuntzakoa eta harremanetakoa eskainiko zaie, pertsonaren garapen autonomoa eta gizarteratzea hobetzen laguntzeko.	La atención a las personas usuarias, se basará en un modelo de atención integral centrada en la persona y en relaciones de ayuda que ofrezcan apoyo instrumental, emocional, educativo y relacional que contribuyan a mejorar el desenvolvimiento autónomo e integración social de la persona.
Genero ikuspegia eta aniztasunarekiko errespetua zeharka txertatuko dira.	Se incorporará transversalmente la perspectiva de género y el respeto a la diversidad.
Erakunde esleipendunak erabiltzaileei dagozkien prestazioak eman beharko dizkie, bai eta haien egoera normalizatzeko kudeaketak egiten lagundu ere.	La entidad adjudicataria tendrá la obligación de proporcionar a las personas usuarias las prestaciones que les pueda corresponder, y el apoyo en la realización de gestiones tendentes a normalizar su situación.
Eguneko Arreta Zerbitzuan, oinarrizko beharrak beteko dira, eta erabiltzaileei babesteko, garbitzeko eta egunez jateko leku bat eskainiko zaie, baita norberaren garbitasunerako eta arropa garbitzeko tresnak ere. Era berean, kontsigna-zerbitzu bat emango da. Jantokia erabiltzeko, Irungo Udaleko Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloko edo Hondarribiko Udaleko gizarte langilearen agindu teknikoa beharko da.	En el Servicio de Atención Diurna, se cubrirán las necesidades básicas, ofreciendo a las personas usuarias un lugar en el que resguardarse, y asearse. y comer durante el día, así como útiles de aseo personal y para el lavado de ropa. Asimismo, se proporcionará un servicio de consigna. Para hacer uso del comedor será necesaria la prescripción técnica de la trabajadora social del Área de Bienestar social e Igualdad del Ayuntamiento de Irun o del Ayuntamiento de Hondarribia.
Errolda soziala duten pertsonen kasuan, korrespondentzia zerbitzua emango da (postontzi pertsonalizatuak, sarbidearen jarraipenarekin).	En el caso de personas con empadronamiento social, se proporcionará servicio de correspondencia (buzones personalizados, con seguimiento de acceso).
Gaueko Harrera Zerbitzuan, gaua pasatzeko baliabidea eskainiko zaie etxerik gabeko pertsonei, eta oinarrizko prestazio hauek eskainiko zaizkie halaber: gaua igarotzea, mantenua (afaria eta gosaria), norbere higienea, kontsigna eta larrialdiko oinarrizko arropa.	En el Servicio de Acogida Nocturna, se ofrecerá a personas sin hogar un recurso en el que pasar la noche y prestaciones básicas de pernocta, manutención (cena y desayuno), higiene personal, lavandería, consigna y ropa básica de urgencia.

Bi zerbitzuetan bermatuko dira informazio zerbitzua eta esku hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala: esku hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea), era horretako zerbitzuetarako ezarritako eskumenen barruan.	En ambos servicios se garantizarán las prestaciones de Información e Intervención socioeducativa y psicosocial: intervención psicosocial (escucha activa y contención emocional), dentro de las competencias establecidas para este tipo de servicios.
Erabiltzaileei arreta emateko, Gizarte Ongizate Arloak onartutako prozedura, araudi, eredu eta planei jarraituko die erakunde esleipendunak	En la atención a las personas usuarias, la entidad adjudicataria seguirá los procedimientos, normativas, modelos y planes aprobados desde el área de Bienestar Social.
III.1.3. ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA	**III.1.3. GESTIÓN Y COORDINACIÓN DE LOS SERVICIOS**
Zerbitzuen kudeaketa eta koordinazioa zerbitzu guztien nahiz pertsona bakoitzarekin egiten diren esku hartze partikularren planifikazioarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako eginkizunetan datza. Talde Tekniko Profesionalaren eginkizunen atalean jaso dira lan horiek.	La gestión y coordinación de los servicios consiste en tareas relacionadas con la planificación, seguimiento y evaluación tanto de los servicios en su conjunto como de las intervenciones particulares que se desarrollen con cada persona y que se recogen en el apartado de las funciones del Equipo Técnico Profesional.
Zentroa eta bere zerbitzuak kudeatzeko, **Irungo Udalak emandako tresna informatikoak erabili beharko ditu enpresa esleipendunak**. Gainera, kontratua indarrean dagoen bitartean, Irungo Udalak, egokiagotzat hartzen badu, beste tresna bat ezarri ahal izango du zentroa kudeatzeko, zerbitzua errazago kudeatzeko eta zentroaren kudeaketaren ustiapen datuak ateratzeko.	Para la gestión del Centro y sus servicios **la empresa adjudicataria tendrá la obligación de utilizar las herramientas informáticas proporcionadas por el Ayuntamiento de Irun**. Además, se abre la posibilidad a que durante el periodo de duración del contrato el Ayuntamiento de Irun pueda implantar otra herramienta para la gestión del Centro que considere más adecuada, de cara a facilitar la gestión del servicio y a la extracción de los datos de explotación de la gestión del Centro.
Era berean, enpresa esleipendunak **iradokizunak, kexak eta erreklamazioak** jasotzeko sistema izango du, bai eta erabiltzaileek parte hartzeko bideak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera.	Igualmente, la empresa adjudicataria deberá contar con un **sistema de recogida de sugerencias, quejas y reclamaciones**, así como cauces de participación de las personas usuarias, según lo establecido en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.
Urtean behin, eta udal langileen aurrean, zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetze maila baloratuko da Udalaren eta esleipendunaren artean adostutako galdetegiaren bidez.	Una vez al año, y en presencia de personal municipal, se valorará el grado de satisfacción de las personas usuarias de los servicios mediante cuestionario consensuado entre el Ayuntamiento y la adjudicataria.
III.1.4. HORNIDURAK JARTZEA	**III.1.4. PROVISIÓN DE SUMINISTROS**
Enpresa esleipendunak zentroaren bizigarritasuna eta funtzionaltasuna bermatzen duten elementu materialak birjarri edo erosi beharko ditu, bai eta haren funtzionamendurako beharrezkoak diren hornidurak ere. Honako hauen horniduraz arduratu beharko du: a) Mantenua	La empresa adjudicataria deberá reponer o adquirir los elementos materiales que garantizan la habitabilidad y funcionalidad del centro, así como de los suministros necesarios para su funcionamiento, encargándose de la provisión de suministros de: a) Manutención.

b) Norbere higienea eta garbitegia c) Botikineko gaiak eta botikak d) Larrialdiko arropa e) Instalazioak eta etxeko ehunak garbitzeko produktuak f) Administrazio materiala (bulegoa) g) Erabiltzaileentzat antolatzen diren tailerretarako eta jardueretarako behar den materiala.	b) Higiene personal y lavandería. c) Artículos de botiquín y medicamentos. d) Ropa de urgencia. e) Productos de limpieza de instalaciones y textiles de hogar. f) Material de administración (oficina). g) Material necesario para talleres y actividades que se organicen para las personas usuarias.
a) Mantenua Erakunde esleipendunak hamaiketakoa eta askaria (edari beroak, fruta, jogurtak, opilak, galletak, ogia, ogitartekoak...) eskainiko dizkie Eguneko Arreta Zerbitzuaren erabiltzaileei, egunean zehar oinarrizko elikadura beharrak asetzeko.	**a) Manutención** La entidad adjudicataria proporcionará a las personas usuarias del Servicio de Atención Diurna almuerzo y merienda (bebidas calientes, fruta, yogures, bollería, galletas, pan, bocadillos…) con el fin de cubrir necesidades básicas de alimentación durante el día.
Bazkarien eta afarien kasuan, jaki prestatuak emango dira, eta dieta orekatua, aberatsa, askotarikoa eta osasungarria ziurtatu beharko du, jantokia erabiltzen duten pertsonei nutrizio ekarpen egokia emateko. Horretarako, menuak egin beharko dira, Dietetikan eta Nutrizioan aditua den pertsona batek gainbegiratuta. Oinarrizko dietak, dieta halalak eta begetarianoak emango dira, bai eta, behar izanez gero, dieta medikoak ere. Bazkari bereziak eskainiko dira abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta ekainaren 30ean. Afari bereziak eskainiko dira abenduaren 24an eta 31n.	En el caso de las comidas y cenas, se suministrarán comidas preparadas, debiendo garantizarse una dieta equilibrada, rica, variada y sana que proporcione el aporte nutricional adecuado a las personas usuarias del comedor, para lo que se deberán elaborar menús bajo la supervisión de un o una especialista en Dietética y Nutrición. Se suministrarán dietas basales, halal y vegetarianas, así como, en caso de necesidad, dietas médicas. Se ofrecerán comidas especiales los días 25 de diciembre, 1 de enero y 30 de junio. Se ofrecerán cenas especiales los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.
b) **Norbere higienea eta garbitegia** Norbere higienerako beharrezko gaiak emango zaizkie pertsonei (xanpua, dutxatzeko gela, xaboi pastillak, hortzetako eskuila eta pasta, orrazia, bizarra egiteko hortzak, emakumeen higiene produktuak, eskuoihalak, oheko arropa…).	**b) Higiene personal y lavandería** Se facilitará a las personas los artículos necesarios para una correcta higiene personal (champú, gel de ducha, pastillas de jabón, cepillo y pasta de dientes, peine, cuchillas de afeitar, productos de higiene femeninos, toallas, ropa de cama…)
Era berean, arropa garbitzeko behar diren materialak eta hornidurak emango ditu enpresa esleipendunak.	Así mismo, la entidad adjudicataria proporcionará el material y suministros necesarios para el lavado de ropa.
c) Botikineko gaiak eta/edo botikak. Oinarrizko premiak betetzeko eginkizunen barruan, beharrezkoa izanez gero, botikineko gaiak eta/edo errezeta medikorik behar ez duten botikak eskainiko dira. Era berean, zerbitzuen erabiltzaileei agindutako botikak eman eta ordaindu beharko ditu enpresa esleipendunak.	**c) Artículos de botiquín y/o medicamentos.** Dentro de sus funciones de cobertura de necesidades básicas, en caso necesario se ofrecerán artículos de botiquín y/o medicamentos que no precisen receta médica. Así mismo, la empresa adjudicataria deberá proporcionar y sufragar los medicamentos que se hayan recetado a las personas usuarias de los servicios.

d) **Larrialdiko arropa** Gaueko Harrera Zerbitzuan emango da, erabiltzaileak arroparik edo oinetakorik ez badu edo hondatuta badaude.	**d) Ropa de urgencia** Se proporcionará en el servicio de Acogida Nocturna, cuando la persona usuaria carezca de ropa o calzado, o las mismas estén deteriorados.
e)Instalazioak eta etxeko ehunak garbitzeko produktuak. Enpresa esleipenduna arduratuko da etxeko garbiketako eta ehungintzako produktuak erosteaz.	**e) Productos de limpieza de instalaciones y textiles de hogar.** La empresa adjudicataria será la encargada de comprar los productos de limpieza y textiles del hogar.
f) Administrazio materiala (bulegoa) Enpresa esleipenduna arduratuko da langileak bulegoko materialez hornitzeaz beren eginkizunak betetzean.	**f) Material de administración (oficina).** La empresa adjudicataria será la encargada de proveer a los trabajadores y trabajadoras de material de oficina en el desempeño de sus funciones.
g) Erabiltzaileentzat antolatzen diren tailerretarako eta jardueretarako behar den materiala. Enpresa esleipenduna arduratuko da gizarte- eta hezkuntza-arloko jardueretarako behar den materiala hornitzeaz.	**g) Material necesario para talleres y actividades que se organicen para las personas usuarias.** La empresa adjudicataria será la encargada de proveer el material necesario para las actividades de carácter socioeducativo.
III.1.5. INSTALAZIOAK ETA ALTZARIAK EGOKITZEA ETA MANTENTZEA	**III.1.5. ACONDICIONAMIENTO Y MANTENIMIENTO DE INSTALACIONES Y MOBILIARIO.**
Esleipendunari dagokio bere esku jarritako instalazioak mantentzea eta zaintzea (guneak mantentzeko lanak eta zentroaren bizigarritasuna eta funtzionaltasuna bermatzen duten elementu materialak birjartzeko edo erosteko lanak).	Corresponderá a la adjudicataria el mantenimiento y la conservación de las instalaciones puestas a su disposición (tareas de mantenimiento de los espacios y de reposición o adquisición de elementos materiales que garantizan la habitabilidad y funcionalidad del centro).
Dokumentu honen ondorioetarako, mantentze lantzat hartuko da bulegoak, instalazioak, ekipamendua eta kanpoko espazioak kontserbatzeko egiten diren aldizkako lan programatuen edo programatu gabeen multzoa, itxitura perimetrala barne, bizitza baliagarriaren aldian, aurreikusitako beharrak asetzeko baldintza egokiak izateko moduan.	A los efectos del presente documento, se entiende por **mantenimiento** el conjunto de trabajos periódicos programados o no programados que se realizan para conservar dependencias, instalaciones, equipamiento y espacios exteriores, incluido el cierre perimetral, durante el período de vida útil de modo a tener unas adecuadas condiciones para cubrir las necesidades previstas.
Erakunde esleipenduna arduratuko da instalazioak behar bezala erabiltzeaz eta kontserbatzeaz, eta egoera onean kontserbatu beharko ditu. Hori guztia, Baldintza Agiri honen eranskinean instalazioen eta baliabide materialen zerrendari buruz jasotako zehaztapenen arabera.	La entidad adjudicataria será responsable de la correcta utilización de las instalaciones y de su conservación, obligándose a conservarlas en buen estado, todo ello en base a las especificaciones recogidas en el anexo del presente Pliego referentes a la relación de instalaciones y medios materiales.
Horretarako, esleipendunak honako hauek hartuko ditu bere gain: a) **Garbiketa:** garbitasuna eta ordena izatea zerbitzuetan eta instalazioetan; garbitegi zerbitzuaren antolaketa eta kontrola; eta higiene eta garbiketa produktuak antolatzea	Para ello la adjudicataria se hará cargo de: **a)** **Limpieza**: limpieza y mantenimiento del orden en los servicios e instalaciones; organización y control del servicio de lavandería; y organización y suministro de productos de higiene y limpieza.

eta hornitzea. b) Ohiko erabileratik etorritako **funtzionamendu gastuak,** esate baterako, arratoigabetzea, fumigazioa eta desinfekzioa eta beste, eta horretarako beharrezkoak diren kontratu guztiak formalizatuko ditu. Bestalde, arriskuen prebentziorako eta arretaren segurtasunerako plana izango du. c) Instalazioen ohiko narriaduraren ondorioz beharrezkoak diren **konponketak eta mantentze lanak egitea**, hau da, hormak pintatu, ateak, leihoak, beirak, heldulekuak, sarrailak, txorrotak, komuneko ontziak eta berogailuak konpondu eta mantendu, bonbillak eta larrialdietarako argiak aldatu, altzariak zaindu, garbiketa eta abar. d) Altzariak eta tresnak **berritzea.** e) **Zerbitzuari atxikitako ondasunak itzultzea**. Kontratua bukatzean, esleipendunak Irungo Udalaren eskura jarriko ditu, erabilera baldintza egokietan, zerbitzuarekin loturiko instalazioak eta ondasunak.	**b) Gastos de funcionamiento** derivados de su normal utilización, desratización, desinsectación y desinfección, etc…, formalizando a los efectos cuantos contratos resulten necesarios. Por su parte, tendrá un plan de prevención de riesgos y seguridad en la atención. **c) Realización de las reparaciones y trabajos de mantenimiento** necesarios motivados por el normal deterioro de las instalaciones, entendiéndose como tales los trabajos de pintado de paredes, reparación y mantenimiento de puertas, ventanas, vidrios, manillas, cerraduras, grifería, servicios sanitarios, calentadores, reposición de bombillas y alumbrado de emergencia, mobiliario, limpieza, etc... **d) Reposición** de mobiliario y enseres **e) Reversión de bienes afectos al servicio.** A la finalización del contrato la entidad adjudicataria deberá poner a disposición del Ayuntamiento de Irun las instalaciones y bienes afectos al servicio, en adecuadas condiciones de uso.
III.1.6. DOKUMENTUEN KUDEAKETA	**III.1.6. GESTIÓN DOCUMENTAL**
Erakunde esleipendunak banakoen datuak eta zerbitzuen funtzionamenduarenak bildu eta zaindu beharko ditu.	La entidad adjudicataria deberá recoger y custodiar los datos individuales, y del funcionamiento de los servicios.
Fitxa bat irekiko da erabiltzaile bakoitzeko. Bertan, egindako esku hartze guztiak erregistratuko dira, Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloak erabiltzaile guztientzat zehazten duen banakako fitxa ereduaren arabera.	Se abrirá una ficha por cada persona usuaria en la que se registrarán todas las intervenciones efectuadas según modelo de ficha individual que se determine desde el área de Bienestar Social e Igualdad para todas las personas usuarias.
Datu guztiak Irungo Udalak emandako ekipo eta tresna informatikoetan tratatu eta gordeko dira kontratua indarrean dagoen bitartean, eta administrazioaren eskura egongo dira. Informazio hori euskarri informatikoan erregistratu beharko da datu base estandar batean, eta datu base horrek aukera eman beharko du datu horiek beste aplikazio batera esportatzeko. Enpresa esleipendunak ezin izango du datu horien kopiarik egin.	Todos los datos se tratarán y custodiarán en los equipos y herramientas informáticas facilitados por el Ayuntamiento de Irun, durante la vigencia del contrato, y permanecerán a disposición de la administración. Dicha información deberá estar registrada en soporte informático sobre una base de datos estándar que deberá permitir la exportación de dichos datos a un nuevo aplicativo. La empresa adjudicataria no podrá hacer copia alguna de estos datos.
Erakunde esleipendunak Gizarte Ongizate eta	La entidad adjudicataria trasladará al área de Bienestar

Berdintasun Arloari jakinaraziko dizkio zerbitzuan gertatzen diren gorabeherak, alten, behin betiko bajen, erabiltzaileen absentziaren edo garrantzizkotzat jo daitezkeen beste gorabehera batzuen gainekoak, gorabehera horiek gertatzen diren egun berean.	Social e Igualdad las incidencias que se produzcan en los servicios con relación a las altas, bajas definitivas, ausencias de las personas usuarias u otras que puedan considerarse relevantes, el mismo día en que tales incidencias se produzcan.
Enpresak, gainera, Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloak eskatzen dizkion datuak eman beharko ditu, hark zehazten duen maiztasunarekin, zerbitzuen ebaluazioa errazteko.	La empresa deberá además proporcionar los datos que se le soliciten por el Área de Bienestar Social e Igualdad con la periodicidad que ésta determine, a fin de facilitar la evaluación de los servicios.
Esleipendunak informazio dokumentuak egin beharko ditu, erabiltzaileen informaziorako eskubidea bermatzeko. Dokumentu horiek hizkuntza koofizialetan idatzita egon beharko dute, bai eta zerbitzuen erabiltzaileek gehien erabiltzen duten edozein hizkuntzatan ere.	La adjudicataria deberá elaborar documentos informativos que garanticen el derecho a la información de las personas usuarias. Dichos documentos deberán estar redactados en las lenguas cooficiales, así como en cualquier idioma mayoritario entre las personas usuarias de los servicios.
III.1.7. INSTALAZIOAK IREKITZEA ETA IXTEA ETA SARRERAK KONTROLATZEA	**III.1.7. APERTURA Y CIERRE DE LAS INSTALACIONES Y CONTROL DE ACCESOS.**
Enpresa esleipendunak, Gizarte ongizate eta Berdintasun arloaren arabera, instalazioak ireki eta itxiko ditu, eta instalazioetarako sarbidea kontrolatuko du. Zerbitzuen erabiltzaileei bakarrik utziko die sartzen	La empresa adjudicataria, en base a las directrices del Área de Bienestar social e Igualdad, abrirá y cerrará las instalaciones, y controlará el acceso a las instalaciones, permitiendo únicamente el acceso a las personas usuarias de los servicios.
III. 2. IRUNGO UDALAREN BETEBEHARRAK	**III. 2. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN**
Lizitatutako zerbitzuei dagokienez, Irungo Udalak egin beharreko lanak Udalak berak egoera bakoitzean zehazten dituen pertsonek, organoek edo beste edozein pertsonak egingo ditu.	Las tareas a realizar por el Ayuntamiento de Irun con relación a los servicios licitados serán desarrolladas por las personas, órganos o cualquier otra figura que en cada circunstancia determine el mismo Ayuntamiento.
Gizarte Ongizate eta Berdintasun Arloak zerbitzuen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egiteko mekanismoak bultzatuko, ezarriko eta gainbegiratuko ditu.	El área de Bienestar Social e Igualdad impulsará, establecerá directrices y supervisará los mecanismos de seguimiento y evaluación continua de los servicios.
Honako konpromiso hauek hartuko ditu Irungo Udalak: a) Esleipendunaren eskura jarriko ditu zerbitzua dagoen instalazioak, behar bezala hornituak. • Zerbitzu horiek garatzeko, Irungo Udalak kontratu honen erakunde esleipendunaren esku jarriko ditu Baldintza Agiri hauen eranskinean deskribatutako ondasun materialak eta instalazioak, kontratuaren iraupenaren epe berean. • Gaur egun erabiltzen ari den lokala lekuz aldatu edo egokitu ahal izango da kontratua gauzatzen	El Ayuntamiento de Irun asume los siguientes compromisos: a) Poner a disposición de la adjudicataria las instalaciones donde se ubican los servicios, equipadas al efecto. • Para el desarrollo de estos servicios, el Ayuntamiento de Irun pondrá a disposición de la entidad adjudicataria del presente contrato, por un periodo de tiempo igual a su duración, los bienes materiales e instalaciones descritos en el Anexo de estos Pliegos.

